

LUNA

— ARABA / ÁLAVA —

Kuartango mendebaldeko alderik garaienean dago Luna, Gasteiztik 30 kilometrora, gutxi gorabehera. Arkamu mendilerroko kareharrizko tontorrek inguratzen dute hegoaldean, eta Gibijo eta Pillarte mendilerroek iparraldean, eta mendi horietatik zehar Burgosko Losa alderantz doan bidean. Orain dela hainbat mendetik hona, Luna herriak "Lunako ledania" izena eman dio inguruetako mendi eta larre komunitateari; Gibijoko mendilerroaren lautadan, Lunarekin batera, Arrianok, Artxuak eta Gilartek osatzen dutenari.

Gaur egun galduta dauden arren, baselizek leku nabarmena izan dute Luna eta inguruko historian. 1556. urtean, Martín Gil lizentziatuak lau baseliza jaso zituen bere bisita-liburuan: San Joan, Santa Ageda, San Justo eta San Kristobal. XVI. mendetik aurrera, Lunako bizilagunen testamentuetan ere, azaltzen dira Corcueraiko San Joan baselizari egindako dohaintzak. Gaur egun ez dago baseliza hori, baina ibilbide historiko handia izan omen zuen. Lunako azken etxeetatik ia kilometro batera zegoen, ipar-mendebaldean. Corcuera, 950. urtean, bazeuden oinetxe bat (bere barruti biribilarekin) eta eliza txiki bat (monasteriokoa), ziurrenik bertako jaunei atxikia, Urbina Basabeko Done Petri eliza bezalaxe. Erdi Aroa bukatzeaz gero, Corcuera oinetxea finkatuta agertzen zen "barruti biribila" gisara, Urbina-Basabe leinu etxeko jauregien barruan. XV. mendearen hasieran, Urbina-Basabe eta Corcuera leinu etxeak batu egin ziren, Pedro Ortiz Urbina Sancha de Corcuera andrearekin ezkondu, geroago, XVI. mendean, Egiluz leinu etxea ere batu egin zitzaizen, eta ibarreko lekuri onenetan ongi finkaturiko leinua sortu zuen.

Luna se encuentra en el sector más alto y occidental de Kuartango, a unos 30 km de Vitoria, rodeada por las crestas calcáreas de la sierra de Arkamo, al Sur, y las sierras de Gibijo y Gillarte, al Norte, y en los caminos que, a través del monte, conducen a la comarca burgalesa de Losa. Desde hace siglos Luna viene dando nombre a la comunidad de montes y pastos llamada "Ledanía de Luna", en plena planicie de la Sierra de Gibijo, en la que se integran también los lugares de Arriano, Archúa y Guillarte.

Las ermitas, aunque actualmente inexistentes, constituyen un capítulo importante en la historia de Luna y su entorno. En 1556 el licenciado Martín Gil registraba en el acta de su visita cuatro ermitas: San Juan, Santa Águeda, San Justo y San Cristóbal. En testamentos de vecinos de Luna, documentados a partir del siglo XVI, se registran pequeños legados con destino a la ermita de San Juan de Corcuera, desaparecida hoy aunque con una rica trayectoria histórica. Se encontraba a un kilómetro escaso de las últimas casas de Luna, en dirección noroeste. En Corcuera había, ya en el año 950, un solar con su término redondo y una pequeña iglesia monasterial, posiblemente vinculada a los señores, al igual que la de San Pedro de Urbina, de Basabe. A finales del medievo aparece ya el solar de Corcuera como "término redondo" dentro de los señoríos de la casa de Urbina-Basabe. A comienzos del siglo XV se unieron los solares de Urbina-Basabe y Corcuera por el matrimonio de don Pedro Ortiz de Urbina y doña Sancha de Corcuera, uniéndose, posteriormente en el siglo XVI, a la casa de los Eguiluz, formando un poderoso linaje asentado en las principales encrucijadas del valle.

San Andres eliza / Iglesia de San Andrés

BALIABIDE URRIKO eliza izan ohi da Lunako San Andres parrokia, baina 1764. eta 1765. urteetan diru-sarrerak izan zituen, eta, hari eskerrak, oinplano berriko tenplua eraiki zuten, gaur egungoa.

Erdi Aroko bataiarri xume bat gorde du eliza horrek. Ontzi lauari, dekoraziorik gabeko oin batek eusten dio;

LA IGLESIA PARROQUIAL de Luna siempre había sido pobre en recursos, sin embargo, en los años 1764 y 1765 contaba con unas entradas extraordinarias en sus haberes que le permitieron acometer la empresa de construir un templo de nueva planta, el que hoy se contempla.

moldura bakunak ditu goiko eta beheko aldeetan. Oinarria, berriz, karratua da, eta lau angeluetan, elkarren gainean jarrita, zabalguneak ditu.

Testua eta argazkia: MPGH

Conserva esta iglesia una sencilla pila bautismal medieval. Su copa, lisa, apea en un pie sin decorar, con simples molduras en las partes superior e inferior. La base, cuadrada, presenta ensanchamientos superpuestos en sus cuatro ángulos.

Texto y foto: MPGH

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 156; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1995, p. 628.



Bataiarria

Pila bautismal